

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 160.000 euro bideratu ditu Iruñeko, Tuterako eta Altsasuko etxerik gabeko pertsonak hartzeko

*Laguntzak udalek jasoko dituzte, udalaren eskumeneko zerbitzua delako*

Miércoles, 24 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak, gaur, 160.000 euroko diru-laguntza zuzena ematea erabaki du Iruñean, Tuteran eta Altsasuan dauden etxerik gabeko pertsonak abegi zentro batean hartzeko. Laguntzak udalek jasoko dituzte, udalaren eskumeneko zerbitzua delako.

Laguntza toki bakoitzak artatzen dituen pertsona kopuruaren arabera banatuko da, hortaz, 100.741 euro, 53.872 euro eta 5.387 euro jasoko dituzte hurrenez hurren.

Zerbitzu horiek hartzen dituztenak etxerik gabekoak dira eta 18 eta 65 urte artean izaten dute. Kanean bizi dira, gizarte larrialdiko egoeran daude eta oso kalteberak dira. Udalaren eskumeneko zerbitzua da eta urteko egun guztietan eskaintzen da. Afaria, gosaria eta gauetan ostatua eskaintzen ditu; gaua igarotzeko 21:00etatik goizeko 8:00etara egoten da zabalik.

Diru-laguntzaren baldintzak ezartzeko orduan 2009ko baliabideen ustiapen kontuaren datuak hartu dira aintzat, baita 2010eko memorian jasotako datuak ere. Halaber, hiru udalei emandako gauen kopuruaren, artaturiko pertsona kopuruaren, mantenuaren eta gau bakoitzaren kostuaren aurreikuspena egiteko eskatu zaie. Datu horiek ikusita ondorioztatu da zerbitzuek bermatzen dituzten hiru kontzeptuen batez besteko kostua 47,28 eurokoa dela egonaldiko 2011. urtean (46 euro gehi 2010erako KPI).

Iruñeko Udalak, 2011n, 2.805 pertsonari harrera egingo diela aurreikusi du, Tuterakoak 1.500 pertsonari eta Altsasukoak 150 pertsonari. Proiektu guztietako diru-laguntzen proposamenetako kopurua guztira erabil daitekeen aurrekontuko kopurua baino handiagoa denez, kasuan kasuko baremoak aplikatu ondorengo zenbatekoak proportzionalki murriztu (% 24,038) eta jadanik aipatutako diru-laguntzaren kopuruak zehaztu behar izan dira.